

DIRU-ITURRIAK

Irabazi iturriak ezinbestekoak dira enpresa bat aurrera eraman ahal izateko, izan ere, gure aplikazioa deskargatzen duten bakoitzeko eta alokatzen dugun pisu bakoitzeko jasoko ditugu. Gainera, irabazi hauek gure enpresa mantentzea ahalbidetuko duena izango da.

Play storek ordaindu egingo digu jendeak gure aplikazio deskargatzen duenean, eta pisu bat alokatzea lortzen dugunean Etxarrek ordainduko digu. Hala eta guztiz ere, diru sarrera hauek ez dira guztiz etekinak izango, izan ere, aplikazioan arazoak baditugu, informatikoari ordaindu beharrekoa, publizitatean, Play Storen aplikazioa edukitzeagatik, App Storen ere aplikazioa edukitzeagatik... ordaindu beharko dugu, beraz .gure soldata hasieran ez da askokoa izango.



Enpresa martxan jarri ahal izateko ez dugu mailegurik behar, Play Storeko 25€- ko tasa, App Storeko 110€, patentatzeko 60€, informatikariari 50€ eta publizitatean 200€ soilik ordaindu behar izango dugulako eta hori guk ordainduko dugu eta behin enpresa martxan jarrita berrreskuratuko dugu. Horregatik, bakoitzak 250€ jarriko ditugu aurreikusitako gastuak ordaintzeko eta aurrera atera ahal izateko. Aplikazioa guk diseinatu eta egingo dugunez, ez da guretzako gastu bat izango eta gainera, bakoitzak bere ordenagailua duenez ezta ere. Hala eta guztiz ere, aplikazioarekin arazoak izanez gero, gure lagunari laguntza eskatu beharko diogu, gure laguna informatikoa delako eta prezioa adostuta dugulako.

Hasieran, gure diru iturriak ez dira handiak izango gure aplikazioa oraindik famatua izango ez delako, beraz gure soldata eduki ahal izateko gure aplikazioaren publizitatea jarriko dugu eta orduan diru sarrerak handitu egingo dira, nahiz eta hasieran baxuak izan. Hasieran, bakoitzak 500€ kobratuko ditugu, baina lortzen ditugun etekinen arabera alda daiteke. Ondoren, gure aplikazioa famatua egin ahala, gure soldata 1500€koa izatera iritea espero dugu.



Martxan jartzeko jarri beharrekoa	
Maddi Urbizu	225€
Maddi Villalain	225€
Guztira	450€

Hasieran izango ditugun gastuak	
Play Store	25€
App Store	110€
Informatikoa	50€
Publizitatea	200€
Patentatzea	60€
Guztira	445€

Ondorioz, guk Play Storek eta gure aplikazioan egiten dugun publizitatearekin jasoko ditugu gure sarrerak eta ondoren, aurreikusten ditugun gastuak kenduta etekinak aterako ditugu. Izan ere, publizitatearekin 1000€ irabazi nahi ditugu guztira hilabetero eta Play Storek 3000€ ordaintzea aplikazioa famatua denean. Orduan, diru sarrerak 4000€koak izango dira, horrela gure 1500€ soldatak ordaindu, gastu guztiak eta gainera 160€ aurreratu.